

Azpeitian, 2013ko ekainaren 13an

Lankide agurgarria,

Dakizuenetz, azken hilabetetan **Azpeitia 2025 Plan estrategikoaren** definizioan murgilduta gaude. Diagnostiko bat burutu ondoren eta bertan identifikatutako lehentasunetan oinarrituta, Plan bat definitzen ari gara momentu honetan. Plan hau zuekin, politikariekin eta herritarrekin lantzen ari gara, guztion ikuspegia ahalik eta modu orekatuagoan uztartzeko asmoz.

Lehenengo zirriborro bat landu genuenean zuei bidali genizuen horren inguruan ekarpenak jasotzeko asmoarekin. Ekarpen horiek jada jaso eta barneratu ditugu bertsio berri bat osatuz.

Datorren astelehenean, **ekainaren 17an, goizeko 10etan** egingo dugun bilerara gonbidatzen zaituztet. Bileraren helburua **Planaren egitura eta edukiak azaldu eta horren inguruan dituzuen ekarpenak jasotzea** da.

Aldez aurretik zure parte hartzea eskertuz, agur bero bat,

Eneko Etxeberria
Alkatea